

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)


EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

EHUREKA AHOLKUAK

26

ITZULPENAREN HASI-MASIAK



ZER DA ITZULTZEA?

“Itzultzea da abiapuntuko testuak (sorburu-testuak) dioen guztia esatea, ez dioen ezer ez esatea, eta esaten dena ahalik eta hizkera natural eta jatorrenean adieraztea (xede-testua).” Edorta España



Beraz, zerbait itzultzeko modu bat baino gehiago egongo da ia beti, eta seguru asko, denak zuzenak izango dira jatorrizko hizkuntzan (sorburu-hizkuntzan) duen esanahiari lotzen bagatzaizkio, eta ez horrenbeste formari.



ITZULTZEKO BALIABIDEAK



Itzultzeko baliabide orokorrak:

-[Hiztegiak](#)

-Corpusak: [Ereduzko prosa gaur](#), [zientzia eta teknologia corpora](#) eta abar

-[Terminologia datu-baseak](#)

-[Itzul posta-zerrenda](#): zalantzak argitzeko.




ITZULTZEKO BALIABIDEAK

Itzulpen memoriak: aurretik itzulita dauden testuak datu-base batean gordetzeko aukera ematen duten aplikazioak dira.

Hainbat erakundek askatu dituzte euren itzulpen memoriak:

- [Gipuzkoako Foru Aldundia](#)
- [Bizkaiko Foru Aldundia](#)
- [IVAP-HAEE erakundeak](#)
- [EIZIE elkarteak](#)

Hori bai, horiek guztiak erabili ahal izateko beharrezkoa da itzulpen memoriak irakurriko dituen programa instalatuta izatea.



ZENBAIT AHOLKU

→ Oso kontuan hartu behar ditugu xede-hizkuntzaren ezaugarriak edo bereizgarriak. Askotan ez dira bat etorriko sorburu-hizkuntzaren ezaugarriekin.

→ Testua zuzena izan daiteke edo hitzez hitzeko itzulpena, baina horrek ez digu bermatuko komunikatuko duenik edo xede-hizkuntzan behar bezala ulertuko denik.

Adibidez: “Domina bien el inglés”. Hitzez hitz: “Ingelesa ondo menderatzen du”. Baina euskaraz menderatu hitzak nagusitu esan nahi du. Beraz, Ingelesez ederki egiten du, Ingelesez ondo daki, ...

→ Oso kontuan hartu behar dugu norentzat itzuli behar dugun. Horren arabera, moldatu beharko dugu gure itzulpena, ahal dugun neurrian, baina hizkera formaletik aldendu gabe. Ez da gauza bera ikasle, lankide edo irakasleentzat itzulpena egitea.



ZENBAIT AHOLKU

→ Itzultzeko, batzuetan kalkoak erabiltzen dira. Berez ez dira txarrak, baina batzuetan beharrezkoa ez denean ere erabiltzen dira.

Adibidez, ¿Vamos a la calle? Kalkoa izango litzateke Joaten gara kalera? Baina itzulpen hobetua izango litzateke Joango al gara kalera?

→ Itzultzean eta hitzak aukeratzean, arretaz begiratu beharko dugu egokiena aukeratzeko, hitz batzuek esangura bat baino gehiago daukate-eta.

Adibidez, público. Euskaraz izan daiteke: San Mameseko ikusleak, jendaurreko ekitaldia, administrazio publikoa, jende asko etorri da, ...

